

NAFARROAKO KOMUNITATEA

Saldias (2002.6.28)

Espania eta frantziako estatuak era askotara saiatu dira geuk daramagun gatazka politikoa desitxuratzen. Geure herriaren etengabeko borrokak geure nortasun politikoa agerian uzten du. Nahiz eta errealitatea azaltzeko, politikoak ez diren beste trikimailu eta korapilo erabili ohi dituzten, ez dago inongo zalantzarik komunitate politikoa garela esatean. Hori argitzeko buruhauste handirik behar ez bada ere, geure xedea ondo ildokatzeko, komunitatearen indar politikoez zelako norabidea izan duten eta non kokatzen diren ikustea egokia izango litzateke.

Euskera hitz egiten zen Europako hizkuntza pre-indoeuropearren garaietara jo gabe, Pirinioak mendikatearen bi aldetan deitu ohi den piriniar komunitatea garatu izan da. Tribu ezberdinez osatutako etnia horrek historian zehar era askotako etsaiei aurre egin izateak komunitate politikoa sendotzea ekarri du. Euren lurraldea defendatzen arerio bakoitzaren asmo eta indarraren arabera zegokion estrategia erabiliz, ezaguna dugun historia jorratu dugu. Hala nola, erromatarrekin izandako harremanak ekarpen handikoak izan ziren bitartean, bisigodo eta frankoek gerrara bultzatu gintuzten, eta aurre egin behar horrek komunitatearen eraketa instituzional eta politikoagoa eskatzen zuen. Hain zuzen, Orreagako gudaren ostean komunitate politiko izaten jarraitu nahiak, Eneko Aritzaren inguruan indarrak batuz, estatua edo erreinua sortu zuen. Beti berdin jokatu ez zuen arren, eraikuntza horretan Tuterako jaureriko Banu-Kasitar familia musulmanaren parte hartzea erabakiorra izango zen. European sortzen ari den mapa geopolitiko berriaren barnean, Nafarroako estatuaren eraketa eta eraikuntza politikoak mendeak beharko ditu. Horrela, Nafar komunitatearen subjektu politikoa Nafarroako Estatu bilakatzearekin batera lerrotu zen geure mapa geopolitikoan. Konkistak eta ondorengo zapalketak Nafarroako estatuaren norabidean zerikusirik handia izan arren, komunitate politikoak bizirik dirau eta ez diogu uko egiten subjektu politiko izaten jarraitzeari.

Nafarrek eraiki berria zuten Estatuak komunitatearen alor ezberdinetako garapena ahalbidetu izan zuen. Baliabide ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta abar erabili eta bideratzeko ahalmena izan zuen. Barne arazoei aurre egiteko eta etorkizuna planifikatzeko botere politiko osoa izan genuen garaian ingurukoentzako eredu izan ginen. Testuinguru horretan, Estatuaren barnean ematen ziren mugimendu sozial, erlijioso, ekonomiko eta kultural ezberdinek euren garapenerako leku erosoak izango zuten.

Komunitate politiko nafarra bere sostengu edo euskarri diren estatuaren aparatu nagusiak galduz doa XIII eta XVII. mendeen bitartean. Galerak oso handiak izango dira, eta honek ekarriko dituen ondorioak oso kaltegarriak izango dira bizirik jarrai nahi duen komunitate politikoan. Estatu atzerritarrek, armadarekin batera, administrari-funtzionariak geure lurraldeetan ezarriko dituzte; bertako bizimodu, foru, ohitura, erlijio, ekonomia, hizkuntza, kultura... hau da, nafarra izaten jarraitu nahi duen komunitate egituren aurka. Nahiz eta geure

komunitatearen defentsan esku hutsik gelditu, Estatu zapaltzaileak komunitate nafarra guztiz desagerrarazteko asmotan, etengabe luzatzen ari diren erasoei aurre egiteko kemena eta borondatea ez zaigu faltako.

Konkista ondoren zapaltzaileen azken xedea geure komunitate politikoa deuseztea delarik, geure lurraldeetako usadio, historia eta geografiaren arabera eratuta zeuden komunitate egituraren aurka joko dute. Hori dela eta, estatu espainiarrak ahaide nagusien arteko ezberdintasunak bere xedeak lortzeko erabiliko zituen: alde batetik, aurrez aurreko guda luzean, euren indarrak ahulduz ezabatzeraino eramanez; eta bestetik, geure komunitatean euren presentzia areagotzea lortuz. Hain zuzen ere, XVI. mendearen erditik hasita ezarri dizkiguten espainiar probintziak eta ondoren frantziar departamenduak geure gizarte egituren nahien gainera ipiniak izango dira. Hau da, ez da bakarrik ezarritako lurralde markoaren aldakuntza, hori ez ezik, artifizialtasunez mendeetan era naturalean eratu genuen egitura hausteko eta honekin batera ahultzeko ere egingina da; kontutan hartu, ezarritako eskualde horien nortasuna indartuz eta,aldi berean, elkarren aurka jarriaz denon arteko elkartasuna desitxuratzeko erabiltzen ari direla. Garbi dago geure lurralde egituraren eraketa, ezarritako zatiketa horietatik at, komunitateak gogoko dituen arabera jorratu beharko duela.

Martin Azpilikuetak, goitizenez Navarro Doktoareak, 1528an bere doktoretza-tesiaren izenburuan zioen: " Lurraldea ez da Erregearena, baizik eta herri elkarteara edo komunitate politikoa, eta erret jabetza bera ere jatorrizko eskubidez herriarena da eta ez Erregearena; eta horregatik komunitateak ezin du jabetza hori zeharo utzi". Argi dago lurraldetasuna ez dagokiola Erregeari, subjektu politikoi baizik. Edozelan ere, konkistapean lurraldea eskuratzeak lehentasuna hartzen du; are gehiago, Nafarroako estatuaren osaketari ez diogunean inoiz uko egin; eta, gainera, jakin badakigunean, egungo Europako estatu modernoaren sorreran aitzindarietako bat izan dela. Esan bezala, konkistapean zeuden Navarro Doktoarearen garaikideak ez ezik, egungo Europako subjektu politikoen artean geure burua tente kokatu nahi dugunok ere horrela ulertzen dugu. Nolanahi ere, zenbait zibilizazio eta abar desagertu egin dira komunitate politiko bezala irauteko gai izan ez direnean, beraz eraketa politikoak garai garaiko arazoei aurre egiteko beharrezkoak dira.

Tamalez, jakin badakigu, jendetzak ez ezik buruzagi politikoei ere askotan ez dakitela beraien nahiak politikoki adierazten, eta hori maiz gertatu izan zaigu historian zehar. Komunitatearen antolakuntza eta mobilizazioak, nahiz estrategia ilun edo gaizki eraturako borrokekin eramanak izan, bere benetako desirak islatu izan ditu. Gu izatearen kontzientzia izan badugu ere, arerioen aurkako defentsak eta askatasunaren nahiak indarrak erabiltzearekin batera, subjektu politiko eraginkorragoa izatera eraman gaitu. Onarpen horrek komunitate politiko bilakatzen gaitu eta ez beste batean. Egia da geure komunitatea historian zehar itxuraz ezberdinak izan diren guda askotan sartuta egon dela, baina guda horiek argi aditzera ematen dute geure komunitate politikoa osaketa ezagatik edo atzerriko subjektu politikoen, hau da, espainia eta frantziako estatuen zapalkuntzazatik eman izan direla. Dena den, estatu konkistatzaileek geure barneko arazoak bailiran estaltzen dituzte, eta bestalde beti komunitatearen zati batetaz baliatu izan dira zapalkuntzari eusteko.

Historiaren zentzuak geure nafar etorkizunaren jabe egin gaitzen eskatzen du, eta zapalkuntzaren aurkako borrokan ez da nahiko historia ofizialarekiko desleiala izatea, intsumisioa izatea baizik. Historiari ihes eginik, konkistak balore inperialistak jainkotuz, gerla egitea, geure estatu-nazioa ukatzea eta herri indarrak banantzea du helburu. Aitzitik, Nafarroako komunitatearen optimismoa geure indarrak batzean, estatu-nazioa osatzean eta balore demokratiko unibertsalak gauzatzean datza; hau da, nafar masen ekintza politikoan oinarritzen da eta ez zapaltzaileen "asmo gizatiarragoetan". Izan ere, geure bizitza etengabe heriotzaz inguratutako bizitza edo bizitza ukatu batean gaudenean, ezin dugula zapaltzaileen fede onean zain egon behar diogu. Bestalde, Nafar komunitateko bakoitzaren ekintzak dimentsio demokratikoa hartzen du, baldin eta zapaltzaileen aurka estatu-nazioaren askatasunaren aldekoa bada. Nafarrok espainia eta frantziako zapaltzaileen aurkako geure borrokaz arduratuz bakarrik egin diezaiokegu aurre demokrazia eta unibertsaltasunari.